

Madrileko Senatuko lehendakaria bertan euskara hitzegitearen aurka

«Pribilegioa izan liteke» Elkarte Autonomoetako hizkuntzak erabiltzea


Madrileko Senatuko lehendakariak, Juan Jose Labordak, ez du gaztelania besterik entzun nahi Madrileko Parlamentuko ganbara garaian. Senatuaren erreforma ondoren, Elkarte Autonomoetako senatoreek galegoz, katalanez edo euskaraz hitzegin ahal izateko aukeraren kontra mintzatu da Laborda PSOEkoa.

DONOSTIA

PSOEkoa den senatuburuak adierazi duenez, Senatuaren erreforma legerako eztabaidak nahiko aurreratuta daude, baina desadostasunak badaude oraindik. Eta desadostasun nagusia Elkarte Autonomoetako hizkuntzak erabiltzeko aukerari dago. «Hori da Senatuaren araudiko erreforma pozgarri bat lortzeko daukagun oztopo nagusia», azaldu du Labordak.

Hizkuntzaren inguruko desadostasunek ez dituzte arazo tekniko edo ekonomikoak sortu. PSOEko Senatuko lehendakariak esan duenez, hizkuntza horiek ez erabiltzeko aurkitzen duen aitzakia nagusia zera da: «Iritzi publikoko sektorearen batzuek Elkarte Autonomoetako hizkuntzak erabiltzea pribilegioa dela uler dezaketek».

Senatua, teoriarik, lurraldetasunaren arabera aukeraturako ganbara da Legebiltzarrean. Bere eginkizun eskasa askotan kritikatu izan da, eta orain erreforma baten bitartez bere garrantzia indartu nahi dute. Asmoa, estatuko Elkarte Autonomoen ordezkariak Senatua bihurtzea litzateke. Erreforma hori egitea proposatu zenean, Euskal Autonomi Elkarteko (EAE) eta Kataluniako inguruko nazionalistek gaztelaniaz gain be-



Juan Jose Laborda sozialista da Madrileko Senatuko lehendakaria.



✓ Senatuko araudiaren erreformarako oztopo nagusia Elkarte Autonomoetako hizkuntza erabiltzeko eztabaidan dago, Labordak esan duenez.

ren hizkuntza propio eta ofizialak erabiltzeko aukera proposatu zuten.

Ideiarik egotzi zitzaizkion lehen trabak ekonomikoak izan ziren. Hizkuntza anitz erabiltzekotan, itzul-tzaile sistema konplexu oso bat jarri beharko litzateke Senatuan. Baina dirua ez da kontua, zehaztu du orain Labordak, euskaraz edo katalanez aritzea «pribilegioa dela uler dezaketela batzuek» baizik.

Araudia bozkatzeko orduan PSOE alderdiak Laborda bere alderdikidearen jarrera babestuko balu, hautatu euskaldunek ez lukete Madrilen Senatuan euskaraz egiteko eskubiderik, sozialistek gehiengo absolutua bait daukate ganbara honetan.

SENATOREEN IGERILEKU PRIBATUA

Senatuan arazo ekonomikoak ez daudeneko seinale ireki berri duten igerilekua da. Labordaren soldata urteko 12 milioikoa da, Felipe Gonzalez gobernuburuarena baino handiagoa. Goi ganbararen egoitzaren erreforma plana egin zenean, Senatu barrenean senatoreentzat igerileku bat egiteko asmoak polemika bizia sortu zuen. Azkenean egin zuten, eta gimnasioa ere ireki behar dute haren ondoan. Igerilekuaren polemika honetaz gain, eskandalu handia piztu zuen jakiteak nola senatoreek bozketa askotan beren ondoko jarleku hutsen izenean ere botoa ematen duten.

Ofizialtasuna

Gaztelaniaz gain, bigarren hizkuntza ofiziala daukate ondoko Elkarte Autonomoek: Euskal Autonomi Elkartea (euskara), Nafarroa (euskara, lurraldeka da ofiziala soilik), Galizia (galegoa), Katalunia (katalana), Balearak (katalana) eta Valencia (katalana, ofizialki *valenciano* esaten dioten arren).

Asturias-en bable edo *asturianu* mintzairak neurri batean ofizialtasuna ere badu. Kataluniako Aran haranean okzitaniara (*aranese* esaten diote han) ofiziala da. Ceuta eta Melillako jatorrizko biztanle musulmanen hizkuntzek, arabierak eta *cherja-k* (hizkuntza berberiarra) ez dute ofizialtasunik.

Frantziako langabezia tasak marka berria hautsi du: 2,7 milioi langabe

JAKI LAUTRE / BAIONA

Frantziako langabezia azken hilabete hauetan gaitzeko igoera egin du 2,7 milioi langabetuen marka hautsiz. Duela bi egun Lan Ministeritzak 2.720.600 langabetuen zenbaki lagarria eman zuen jakitera.

Azken hilabete hauek ikaragarriak izan dira langabeziaren gorakadan Estatu osoan; martxoak baziren 2.603.100 langabetu; apirilean 2.688.900, maiatzean 2.720.600 eta ekainean beti jarraitzen zuen goraka.

ANPE edo bulego agentzian dauden langabetuen kopuruak % 1,2 egin du gora 31.700 lagun gehiago etorri direlarik beren izenen ematera. Langabeziari buruzko estatistika

hauetan, gobernuak lehen aldiz erabaki du bi iturri desberdinen zenbakien agertzea. Lehenik ANPEk emandakoen arabera, 2,7 milioi langabetuen kopurua gainditu egin da; BIT edo Lanaren Nazioarteko Bulegoak ateratzen dituen zenbakien arabera, 2,3 milioi langabetu baino ez ziren, joan zen ekainean Frantziako BIT bulegoak egin ohi dituen bere estatistiketan ez ditu kontutan hartu epe laburreko —ordubete baizik ez bada egiten ere— lana egiten duten langabetuek.

Bigarren emaitza lehena baino pixka bat baikorragoa izanik ere, biek erakusten dute langabeziaren egoera larria. Urte hasieratik Estatu osoan 141.000 langabetu gehiago

badira. Eta langabezia kopuruak jendetza aktiboaren % 9,4 gainditzen du.

Adituek iragartzen dutenez, ekonomiararen garapena urte osorako gehienez % 1,5era helduko da. Horrek zuzenki dakarren ondorioa zera da, lanpostuak oraindik gehiago murriztuko direla.

ANPEren estatistikek lanpostu murrizte hori egiaztatzen dute, iazko ekainarekin konparatuz aurtengo ekainean kanporatze ekonomikoak % 14,5 handitu dira. Gainera bulego agentzian agertzen diren enplegu eskaintzak asko jaitsi dira, duela urtebete 105.000 lan eskaintza zirelarik, aurtengo ekainean 88.000 baizik ez ziren.

LABURREAN

SUTE larriak Mediterranioko kostaldean

Sute larriak gertatzen ari dira bai estatu frantsesean zein espainolean, Meditarranioko ibarrean. Katalunian, Ebro ibaiaren ibarrean gertatu den sute izugarria itzaltzen Armadak ere parte hartu behar izan du. Frantzia hegoaldean alarma egoera piztuta dago, eta baso ugari suntsitu dituzte Toulon hiriaren inguruko suteek. Bitartean, Mallorcan gizon bat atxilotu dute nahita 1.500 hektarea erre zituen sutea eragiteagatik.

UGTko Redondok gogor kritikatu du berriro Gobernua

Nicolas Redondo UGT sindikatuko buruak adierazi duenez, kaltegarriagoak dira Carlos Soltxaga ministroaren adierazpenak Konpetitibitate Paktuko negoziazioak haustea baino. Sindikatu barneko agiri batean, gogor kritikatu du Gobernuaren jarrera Redondok, erru guztia sindikatuei egotzi nahi izanagatik. Gainera, nabarmentzen du, CEOE enpresari erakundearen eta Gobernuaren jarrerak ados egon ziren une orotan negoziazio mahaian, eta hori berez nahiko adierazgarria da.

PCE siglak gehixeago ezkutatuko dira IU barruan

Izquierda Unida barnean bere posizioa finkatzea erabaki zuen atzo PCE alderdi komunistaren komite zentralak. Atzoko bileran datorren abenduan burutuko den Kongresu erabakiorra eztabaidatu zen. Analista politikoek nabarmentzen dutenez, Kongresu «bitxia» izango da hori, PCEren izaera indartu eta bultzatu beharrean, IU barnean gehiago errotzeko joera nagusituko bait da seguruenik.

SEVILLAN narkotrafiko sarea desantolatu dute

Espainiako Poliziak droga trafikatzailen sare bat desantolatu du Sevillan (Andalucia) eta bost pertsona atxilotu ditu ekintzan, denak familia berekoak. Turkiarekin lotuta zeuden narkotrafikatzaila hauek eta handik heroina eramaten zuten Espainiara, Sevilla hirian banatzeko. Bost atxilotuetako bat aurretik ere atxilotuta egon zen 1988 eta 1989an, baina prozesu judizialek kalean utzi zuten.

Bahitu guztiak askatu zituzten Tenerife-2an matxinatutakoek

TENERIFE

(Canarias) gartzelan matxinatutako bi presoek atzo askatu zituzten bahituta zeuzkaten hamaika lagunak, hemeretzi ordu iraun zuen matxinada amaitzean. Gartzelako egoera miserableagatik protestan atxatu ziren presoak, «tortura psikiko eta fisikoak» salatuz. Azken hiru asteetan bost matxinada egon dira gartzela espainoletan, presoen egoera penagarriak eragindakoak denak. Hauetariko bat Euskal Herrian izan zen, Langraitze-ko espetxean (Araba).